

FEI – ETE eta MIDCAP LERROA

Finantzen Euskal Institutuak enpresa txiki eta ertainen (ETE) eta kapitalizazio ertaineko enpresen (MIDCAP) eskura jartzen du haien finantzaketa-beharrei erantzuteko lerro bat, bai zirkulatzaille-premiak asetzeko, bai aktibo finkoetan inbertitzeko.

Finantzaketa-lerro honek ezaugarri nagusiak hauek ditu:

FEI – ETE eta MIDCAP LERROA	
HELBURUA	Inbertsioak edo kapital zirkulatzaillearen beharrak finantzatzea.
INDARRALDIA	2015eko abenduaren 31ra arte.
ONURADUNAK	Enpresak, pertsona fisiko edo juridikoak, ETEak (250 langile arte) eta MIDCAPak (250 langiletik gora eta 3.000 langile arte), haien balantzea eta fakturazio-bolumena edonolakoa izanda ere. Euskal Autonomia Erkidegoan egoitza duten enpresek bertan edo kanpoan gauzatzeko proiektuak, bai eta beste enpresa batzuek egitekoak ere, finantzatuko den proiektua EAEn daukaten produkzio-zentro batean garatzekoa izanez gero.
KONTZEPTU FINANTZAGARRIAK	Aktibo ukigarri berriak edo lehen aldiz erabiliko direnak (lursailak izan ezik) erostea, berritzea edo zabaltzea. Aktibo ukiezinetan inbertitzea, honako hauek banean hartuta: aktibo ukigarri bat eraikitzeke fasea garatzeko, planifikatzeko eta finantzatzeko kostuak, I+G gastuak, estatu barruko edo EB barruko merkatuetan banaketa-sareak eratzea. Belaunaldien arteko errelebua edo enpresa eskualdatzea, premiak milioi bat eurotik beherakoak badira, eta eroslea zein saltzen den erakundea ETEak badira. Epe ertaineko eta luzeko kapital zirkulatzaillearen beharrak.
BAZTERTUTAKO KONTZEPTUAK	Birfinantzaketak, lursailen erosketak eta finantza-transakzio hutsak.
BAZTERTUTAKO SEKTOREAK	Krisi-egoeran dauden enpresak (EEAO, 2004ko urriaren 1ekoa). Armamentuen, armen eta munizioen fabrikazioa, eta ekipamendu, instalazio edo azpiegitura militar edo polizialak, norbanakoen eskubideak edo pertsonen askatasuna mugatzea edo giza eskubideak urratzea xede badute. Ausazko jokoak eta haiei lotutako materiala. Tabakoaren fabrikazioa, transformazioa edo banaketa. Bizirik dauden animaliak saiakuntzetarako edo helburu zientifikoetarako erabiltzea dakarten jarduerak, “Esperimentazioan eta bestelako zientzia-saioetan erabilitako animalia ornodunak babesteko Europako hitzarmena” beteko dela bermatu ezin bada. Ingurumenean duten inpaktua oso neurri txikian arintzeko edo konpentsatzeko aukera ematen duten jarduerak. Jarduera eztabaidagarriak, arrazoi etiko edo moralak tarteko, bai eta estatuko legediak debekatutako jarduerak ere.

	<p>Higiezinaren sustapena helburu bakarra duten jarduerak .</p> <p>Jarduera edo transakzio finantzario hutsak.</p> <p>Europako Inbertsio Bankuak ezarritako NACE kodeen zerrendan baztertutako edozein jarduera.</p>
BETEKIZUNAK	<p>Egoitza fiskala eta/edo produkzio-zentroa Euskal Autonomia Erkidegoan izatea.</p> <p>Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekin dituenak egunean izatea.</p> <p>Diru-laguntzak edo laguntza publikoak lortzeko aukera galtzea dakarren zigor penalik edo administratiborik ez izatea, eta ez egotea horretarako ezgaitzen duen legezko edozein debekuren eraginpean.</p> <p>Proiektua egiteko kaudimen ekonomiko eta finantzarioa egiaztatzea.</p> <p>Emandako mailegua itzultzeko gaitasuna bermatzea edo FEIren alde berme nahikoak eratztea.</p>
PROIEKTU HAUTAGARRIAREN ZENBATEKOA	25.000.000 euro arte, eta MIDCAPen kasuan 50.000.000 euro arte.
MAILEGUAREN ZENBATEKOA	Proiektu hautagarriaren kostuaren % 100 gehienez, eta 12.500.000 euro gehienez. 25 milioi eurotik 50 milioi eurora bitarteko MIDCAP proiektuen kasuan, FEIk finantzatu ahal izango ditu premien % 50, gehienez.
EPEA	2 urtetik 10 urtera bitartekoa.
GABEALDIA	24 hilabete, gehienez, amortizaziorik gabe.
AMORTIZAZIOA	<p>Printzipalaren itzulketa kuota berdinetan egingo da, sortutako interesak erantsita.</p> <p>Amortizazio aurreratuak ez du penalizaziorik izango.</p>
INTERES-TASA	Interes-tasa aldakorra, Euribor erreferentziatza hartuta.
KOMISIOA	Eskaera edo formalizazio bakoitzeko, eskatutako edo emandako zenbatekoaren % 0,50eko komisioa ezarri ahal izango da gehienez.
BERMEAK	EBB baten abala edo beste berme batzuk eskatu ahal izango dira FEIren alde.
EMATEKO PROZEDURA	Memoria tekniko eta eskatutako agiri tekniko eta administratiboak oinarri hartuta, FEIk aztertuko du kasua.
AURKEZTEKO TOKIA	<p>FINANTZEN EUSKAL INSTITUTUA</p> <p>Donostia-San Sebastián kalea, 1</p> <p>01010 Vitoria-Gasteiz</p> <p>Telefonoa: 945 019 104</p> <p>e-maila: a-beistequi@ivf-fei.eus; i-goicoecheabilbao@ivf-fei.eus</p>